Arxuriko Zohikaztegia / *Turbera de Arxuri*

Zer da zohikaztegia?

Zohikaztegiak inguru istiltsuetako habitatak dira eta oso ingurune mugatzaileetan sortzen dira: euri anitz, tenperatura hotzak, lurzoru iragazgaitzak, ura metatzea eragiten duten lubetak, eta oro har, giro azidoak.

Baldintza horietan landaretza ez da arras deskonposatzen eta geldo-geldo metatzen da (0,5 eta 10 cm artean, ehun urte bakoitzeko); horrek zohikatz-metaketak sortzen ditu.

Zergatik da garrantzitsua zohikaztegiak kontserbatzea?

Gure bazterrotan, horrelako habitat naturalak arras gutxi direlakoz eta, gainera, era anitzetako animalia eta landare bereziak daudelakoz; batzuk babestuak, eta bertze batzuk, arrunt bakanak.

Zohikatzaren lodiera nabarmena denean, gauza jakingarria da zinez aztertzea inguruko landaretzatik heldu eta metatzen den deskonposatu gabeko materia organikoa (polen-pikorrak, batez ere), horrek funtsezko informazioa ematen baitu inguruko klima eta paisaia denboraren joanean nola bilakatu diren jakiteko.

¿Qué es una turbera?

Las turberas son hábitats de zonas encharcadas que se originan en ambientes muy limitantes: lluvias abundantes, temperaturas frías, suelos impermeables, cubetas que facilitan la acumulación del agua y ambientes ácidos.

En estas condiciones los suelos son muy pobres en nutrientes y además, la vegetación no termina de descomponerse y se va acumulando muy lentamente (entre 0,5 y 10 cm cada cien años) dando lugar a los depósitos de turba.

¿Por qué es importante su conservación?

Porque son hábitats naturales muy escasos en nuestras latitudes y además acogen una rica variedad de animales y plantas singulares, algunas protegidas y otras muy raras.

Cuando el espesor de la turba llega a ser importante, el análisis de los restos de materia orgánica sin descomponer (principalmente granos de polen) que se va acumulando procedente de la vegetación del entorno, aporta información histórica fundamental sobre la evolución del clima y del paisaje de la zona.



Esfagnoak zohikaztegiko goroldioak dira eta urari atxikitzen dioten belakiak bezalakoak dira.

Los esfagnos musgos de turbera, funcionan como esponjas que retienen el agua.

Deskonposatu gabeko goroldio hilak beherantz handitzen du zohikaztegiaren lodiera.

El musgo muerto, sin descomponer, aumenta el espesor de la turbera hacia abajo.

Orain dela milaka urte bizi ziren landareen polena gordetzen du zohikaztegiak.



La turba conserva polen de plantas que vivieron hace miles de años.

Intereseko espezieak Arxurin

Especies de interés en Arxuri

Sphagnum papillosum



Erica tetralix

Potamogeton poligonifolius



Pingüicula lusitanica



Drosera landare haragijalea da eta, lurzoruko mineral defizitari aurre egiteko, hostoetan itsatsirik gelditzen zaizkion intsektuak jaten ditu dieta osatze aldera.

La Drosera es una planta carnívora que, para paliar el déficit de minerales del suelo, complementa su dieta con los insectos que quedan pegados en sus hojas.



LIFE · TREMEDAL *Nat/Es/707*

NATURA 2000 sare ekologiko bat da eta helburu du Europako espezierik eta habitatik mehatxatuenen biziraupena epe luzera bermatzea.

LIFE programa Europar Batasuneko tresna bat da, ingurumenaren kontserbazioa eta babesa finantzatze aldera.

LIFE+ TREMEDAL proiektuak helburu du Iberiar Penintsulako iparraldeko hezegune kontinental multzo bateko zohikaztegietako habitat eta habitat higrofilo guztien kontserbazio-egoera hobetzea.

NATURA 2000 es una red ecológica cuyo objetivo es garantizar la supervivencia a largo plazo de las especies y los hábitats más amenazados de Europa.

El **programa LIFE** es un instrumento de la Unión Europea para financiar la conservación y la protección del medio ambiente.

El proyecto **LIFE+ TREMEDAL** busca mejorar el estado de conservación de los tipos de hábitats turbosos e higrófilos de un conjunto de humedales continentales del norte de la Península Ibérica.



Arxuri Nafarroako lur azaleko zohikaztegirik handiena da, bai eta zohikatz metaketarik sakonena duena ere. Azken azterlanen arabera, zohikaztegiaren sakonera 4,5 metrotik gorakoa da, baina oraindik ez dakigu zer antzinatasun duen. 50 cm-ra, 2700 urteko antzinatasuneko pago, haritz eta hurritz hondarrak aurkitu ziren, baina azken argitalpenen arabera, metaketak 6370 urte baino gehiago izan ditzake 270 cm-ko sakoneran.

La de Arxuri es la turbera más grande en superficie de Navarra y también la que mayor profundidad presenta en el depósito de turba que alberga. Estudios recientes han descubierto que la turbera tiene una profundidad de más de 4,5 m. A 50 cm se encontraron restos de hayas, robles y avellanos de 2700 años de antigüedad, pero las publicaciones más recientes afirman que el depósito puede tener más de 6370 años, a 270 cm de profundidad.

Lekurik garrantzitsuenetako bat da Europa osoan mehatxaturik dauden hainbat habitat mota orokorrean kon-tserbatzeko (7140 eta 7150 habitatak, nagusiki); aldi berean lekurik garrantzitsuenetako bat da zohikaztegietan (habitata) aitzindariak diren landare komunitateen habitata kontserbatzeko, Iberiar Penintsulako erdialde-iparraldean behintzat.

Es uno de los enclaves más importantes para la conservación de varios tipos de hábitats amenazados a escala europea (Hábitats 7140 y 7150 principalmente) y para la conservación del hábitat de las comunidades vegetales pioneras en turberas, al menos en el centro-norte de la Península Ibérica.

Arxurin azienda dabil baina, oro har, erabilera hori neurritsua da eta ez da eragin nabarmenik atzeman (toki zehatz batzuetan izan ezik). Dena dela, gutxienez ere bi egoeratan ez dakigu zer ondorio izan dezakeen aziendak floraren eta habitaten bilakaeran.

El uso ganadero de la turbera de Arxuri es en general moderado, sin que se hayan detectado impactos importantes (salvo casos concretos). Sin embargo, existen al menos dos situaciones en las que no se conoce el efecto que puede estar teniendo el ganado: en la evolución de la flora y la de los hábitats.

Batetik, Spiranthes aestivali espeziea atzeman zen habitata dago. Zalantza dago artzaintzak edo zapalketak espezie horren desagerpena eragin ote duten.

Por una parte se encuentra el hábitat donde se detectó la presencia de *Spiranthes aestivalis*. Cabe la duda de si la presión por pastoreo o pisoteo han podido provocar la desaparición de la especie.

Bertzetik, zohikaztegian, istil gutxien eta erliebe laua duen aldean, azienda aunitz dabil, eta handia da halaber artzaintzak eta zapalketak eragindako presioa. Inguru horretan esfagnalek eta larre higrofiloek osaturiko mosaiko bat dago, eta esfagnal horiek dute interesik handiena Arxuriko zohikaztegia kontserbatze aldera. Dena den, ez dakigu zer ondorio izan dezakeen aziendaren presioak bi habitaten gainean, hau da, onuragarria den habitat batentzat edo bertzearentzat.

Por otra parte, en la zona de la turbera que está menos encharcada y presenta un relieve plano, la presencia de ganado es alta y la presión por pastoreo y pisoteo también. En esta zona se presenta un mosaico de esfagnales y pastizales higrófilos, siendo los primeros de mayor interés para la conservación en el contexto de la turbera de Arxuri. Sin embargo, no se conoce el efecto que puede estar teniendo la presión del ganado favoreciendo a uno u otro de los dos hábitats.

Aziendak floraren eta habitaten gainean zer ondorio duen neurtzeko bi itxitura eginen dira, aziendaren sartu-irtenak kontrolatzeko.

Para valorar el efecto del ganado en la flora y los hábitats se van a realizar dos cierres que permitirán controlar la entrada del ganado.

Universidad de Oviedo · USC Universidade de Santiago de Compostela · Consorcio Interautonómico Parque Nacional Picos de Europa · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · hazi Lurra eta Itsas Ingurunearen Jauriaritzaren Fundazioa · Fundación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino · GrupoTragsa · Nafarroako Gobernua · Gestión Ambiental de Navarra, S.A. · Baztango Udala · Zugarramurdiko Udala